

KIROLGÍ FUNDAZIOAREN KUDEAKETARAKO KONTRATUA ESLEITZEKO BALDINTZA GIRIA

I.- AGIRIAREN XEDEA.

1.- Agiri honen xedea da **KIROLGÍ FUNDAZIOA** (aurrerantzean Kirołgi) kudeatzeko kontratu bereziaren klausula ekonomiko-administratiboak eta preskripzio teknikoak ezartzea.

2.- Prozedura IREKIAren bidez esleituko da kontratu hau, kontratuaren balio zenbatetsia (luzapenak barne) eta Fundazioaren Kontratazio Jarraibideak aintzat harturik.

II.- EGINKIZUNEN DESKRIBAPENA.

Hauek izango dira **KIROLGÍ**ri emango zaizkion kudeaketa zerbitzuak, nagusiki:

- Fundazioaren bulegoa kudeatu, zuzendu eta administrazio lana gauzatu (datu baseak, artxiboa, erregistroa, hornitzaileak eta abar).
- Publikoari arreta zerbitzua eskaini bulegoan, telefonoz eta Internet bidez.
- Protektoratuarekin harremanak burutu (liburuak, memoria ekonomikoa, aurrekontuak, komunikazioak, baimenak etab.).
- Babesleak eta laguntzaileak bilatu eta erakarri.
- Babesleekin eta laguntzaileekin harremana izan eta haiei arreta eskaini.
- Babesa ematen zaien pertsonen eta entitateen jarraipena egin.
- Babesa ematen zaien pertsonekin eta entitateekin harremana izan eta haiei arreta eskaini.
- Aholkularitza zerbitzua eman, Fundazioaren publizitatea, analisia eta plangintza egiteko nahiz irudia kontrolatzeko eta ebaluatzeko kontratatuturiko enpresarekin batera.
- Webgunearen mantentze-lana.
- Hedabideekin harremanak izan, informazioa eman, prentsa oharrak egin, prentsaurrekoak antolatu eta abar.
- Fundazioaren ekitaldiak antolatu.

- Kirol arloan, estrategiak prestatu, proposamenak eta txostenak gauzatu, lan ildoak garatu, irizpideak eta baldintzak ezarri, hitzarmenak eta kontratuak lotu nahiz berrikusi.
- Txosten ekonomikoak, aurrekontuak, kontabilitate eta zerga txostenak gauzatu.
- Taldeen diru laguntza lerroak exekutatu.
- Kirolarien eta teknikarien diru laguntza lerroak exekutatu.
- Behe mailako klubak pizgarri ildoak exekutatu.
- Babes emaileei eta babes hartzaileei aholkularitza zerbitzua eskaini babesleza gaian.
- Aurretik aipatu diren eginkizunak gauzatzean sortzen diren era guztietako bilerak antolatu eta haietan parte hartu.
- Aurrekoen antzeko edo aurrekoetatik sorturiko beste edozein eginkizun edo jardura.

III.- KONTRATAZIO ORGANOA ETA KONTRATAZIO MAHAIA. KONTRATUAREN ARDURADUNA

1.- Kontratazio organoa Fundazioaren Patronatua izango da, **KIROLGÍ**ren Kontratazio Jarraibideetan ezarritakoaren arabera.

2.- Kontratazio Mahaia pertsona hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren burua.

Bokalak:

- Kirol Zerbitzuko programa burua
- Zerbitzu horri atxikitako teknikaria.
- Fundazioaren aholkulari juridikoa.

Idazkaria: Patronatukoa.

3.- Fundazioaren Batzorde Exekutiboak izendatzen duen pertsona izango da kontratuaren arduraduna.

IV.- KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA

1.- Kontratua gauzatzeko epea hiru urte (3) izango da, sinatzen den egunetik hasita. Kontratua gehienez bi urtez luza daiteke; beraz, gehienez bost (5) urte iraungo du, **KIROLGren** Kontratazio Jarraibideen 5. puntuan ezarritakoaren arabera.

2.- Luzatzen baldin bada, kontratuaren ezaugarriak ez dira aldatuko.

V.- LIZITAZIORAKO GEHIENEO AURREKONTUA.

1.- Kontratuaren aurrekontua, kontratuaren xede diren eginkizun guztiak barne hartuta, berrehun eta hirurogeita hamar mila (270.000,00) euro izango da; zenbateko horri BEZa erantsi beharko zaio.

2.- Baldintza agiri honen xede den kontratuaren prezioak ez dira berrikusiko lehenengo urtean, ezta exekutaturiko zenbatekoaren lehenengo % 20an ere; baina indarrean jarri eta bi urte igarotzen direnetik aurrera, eta behin-behineko luzapenen kasuan, prezio berrikusi egingo da, eta Estatistikaren Euskal Erakundeak (edo etorkizunean gai honetan eskumena duen organoak) urtero argitaratzen duen Euskal Autonomi Erkidegoko kontsumoko prezioen indize orokorraren aurreko urteko abenduko goiera tasa aplikatuko zaio kontratuaren prezioari; berrikustean, ezingo da gairiditu indizeak izan duen aldaketaren % 85a.

3.- Kontratuaren zenbatetsitako balioa osatuko dute esleipen prezioak (BEZik gabe), hasierako indarraldia eta balizko luzapenak barne direla, eta indarraldiko azken hiru urteetan eta luzapenetan izandako eguneratzeak.

VI.- GAITASUNA ETA KAUDIMENA

1.- **KIROLGI**rekin kontratuak egiteko baldintza hauek bete behar dira: pertsona fisikoa edo juridikoa izan, espainiarrak edo atzerriarrak, jarduteko erabateko gaitasuna izan, kontratatzeke debekurik ez izan, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala egiaztatu, agiri honetan ezarritakoaren arabera.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendunak izan daitezke, baldin eta kontratuaren xede diren zerbitzuak bere helburuen eta jardunaren barnean sartzen badira, betiere bere Estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

2.- Lizitatzaille guztiek egiaztatu beharko dute badutela kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala:

- Azken hiru urteetan, urtean gutxienez 100.000 euroko (BEZik gabe) negozio bolumena izan, kontratuaren xede diren zerbitzuen kudeaketan .
- Azken hiru urteetan gutxienez bost lan egina izan kontratuaren xede diren zerbitzuen kudeaketan. Emandako zerbitzuak edo egindako lanak egiaztatzeko, eskumena duen organoaren ziurtagiriak beharko dira.

VII.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

1.- Lizitazioan parte hartu nahi duten enpresek **KIROLGÍ**ren egoitzan aurkeztu beharko dituzte proposamenak- Donostiako Anoeta pasealekuaren 5. zenbakia, behea-, kontratugilearen profilean iragarkia argitaratu eta 20 egun naturaleko epean.

Hiru gutun-azal itxi aurkeztu behar dira (A, B eta C), beherago zehazten den dokumentazioa barnean dutela, eta gutun-azaleko bakoitzean adierazi beharko da zein kontrataziotan lehiatzen den, enpresaren edo proposamena egiten duenaren izena, proposamena izenpetzen duenaren izen-abizenak eta zein izaerarekin izenpetzen duen. Lizitazioan parte hartzen duen enpresaren ordezkariak izenpetuta egongo dira gutun-azalak, nahitaez.

Deialdiaren iragarkia eta baldintza agiri hau **KIROLGÍ**ren webgunean, www.kirolgi.org, egongo dira, kontratugilearen profilean.

2.- Lizitatzaille bakoitzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, ezta ezarritako baldintzekiko aldagai bat baino gehiago ere, baina baldintza agiri honetan agertzen diren zerbitzuak hobetzeko nahi beste proposamen aurkeztu ahal izango ditu.

3.- Enpresa lizitatzailleak proposamenak aurkezteak berekin dakar agiri honetako baldintzak bere horretan onartzea, bai eta lan hauek kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituela dioen adierazpen arduratsua egitea ere.

VIII.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- A gutun-azalean, administrazio dokumentu hauek jaso beharko dira:

- 1.- Enpresa lizitatzaillearen nortasuna, gaitasuna eta kaudimena egiaztatzen duten dokumentuak, eta haren ordezkariarenak, hala badagokio:

- Enpresariak pertsona juridikoak badira, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: eratze eskritura, Estatutuak edo sortze agiria, non agertzen diren jarduera arautzen duten arauak, behar bezala inskribatuak, pertsona juridikoaren arabera dagokion erregistro publikoan.
- Pertsona fisikoak diren enpresariak Nortasun Agiri Nazionala aurkeztuko dute.
- Beste baten izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek, Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eta askietsitako ahalmena aurkeztu behar dituzte. Enpresa pertsona juridikoa izanez gero, ahalmena Merkataritza Erregistroan jasota egongo da, hala eskatzen bada, Merkataritza Erregistroko Araudiaren 94. artikuluaaren arabera.

Dokumentazioa guztia jatorrizkoa izango da, edo behar bezala konpultsatua eta egiaztatua.

1. atalean eskatzen diren ziurtagiriak aurkeztu beharrik ez dute izango Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailatza eta Auditoretza Zerbitzuak emandako ziurtagiriaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontratuak egiteko gaitasuna egiaztatzen edo egiaztatu duten lizitatzailerek; martxoaren 13ko 24/2001 Foru Dekretuak 2. Kapituluan hala ezartzen baitu. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Errolda Ofizialari eta Sailkapen Ezarpenari buruzko 1998ko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak erregulatutako Kontratisten Erroldan izena emanda daudenek, errolda horretako legelari arduradunak egindako ziurtagiriaren kopia aurkez dezakete.

2.- Lehiatzaileak propio egindako erantzukizuneko adierazpena, kontratatzeke debekurik ez dagokiola agertzeko, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, 49. artikuluan xedatzen duenaren arabera. I. Eranskinean dago eredua.

3.- Ekonomia, finantza nahiz teknika aldetik kaudimena duela egiaztatzen duen agiria, 6. klausulan jasotakoaren arabera.

4.- Adierazpen eredua eta enpresaren proposamen ekonomikoa izenpetzen dituen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionalaren kopia benetakotua.

2.- B) gutun-azalean dokumentazio tekniko hau jasoko da:

- Lan programa, kontratuaren xede diren zeregin guztiak barne hartuko dituen, nola egin behar diren, nork egingo dituen, zenbat ordu beharko diren eta abar zehaztuta.
- Kontratua gauzatzen lan egingo duen taldearen datuak: izen-abizenak, bakoitzaren titulazioa, esperientzia urteak eta curriculum vitae, egindako lanen eta zerbitzua eman zaien entitateen zerrenda zehatza.
- Kontratu honen xede diren zerbitzuen osagarri izango diren funtzioen edo hobekuntzen proposamena, lizitatzailaren ustez garrantzitsuak eta balioestekoak direnak.

3.- C) gutun azalean, agiri honekin II ERANSKIN gisa doan ereduaren arabera eskaintza tekniko eta ekonomikoari buruzko agiriak. Lizitazioa kontratuaren xede diren zerbitzu guztiak aintzat hartuz egin beharko da, ez sorta independenteka.

4.- Lizitaziora zenbait enpresa batera aurkeztzen badira aldi baterako enpresa batasun baten bitartez, kide bakoitzak egiaztatu beharko du bere nortasuna, jarduteko gaitasuna eta kaudimena, arestian azaldutako 8.1.1 eta 8.1.2 pasarteetan xedatutakoaren arabera. Halaber, A) gutun azalean proposamen idatzi bat aurkeztu beharko dute, non adierazi behar dituzten enpresa izenpetzaileen izenak eta gorabeherak, haietako bakoitzak batasunean duen partaidetza, eta ordezkari edo ahalordedun bakarraren izendapena, kontratuak lekartzakeen eskubideak erabili eta betebeharrei aurre egiteko ahalorde nahikoaz, eta kontratua esleitzuz gero, aldi baterako enpresa batasuna eskritura publikoan formalizatzeko konpromisoa.

IX.- KONTRATUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratua esleitzeko, eskaintzak batera eta libreki baloratuko dira eta kontuan hartuko dira, gehienetik gutxienera, ponderazio faktore hauek:

- Kontratuaren xede diren zerbitzuak emate programa, baldintza teknikoen agirian adierazitakoaren arabera: 45%.
- Enpresa lizitatzailak kontratua betetzeko izango duen lan taldea osatzen duten pertsonen prestakuntza, curriculum eta egokitasun teknikoa kontratuaren xede den esparruan: % 25.
- Eskaintako prezioa: 25%.
- Kontratu honen xede diren zerbitzuen osagarri izango diren eginkizunen edo hobekuntzen proposamena: 5%

X.- KONTRATUA ESLEITZEA

1.- Kontratazio organoak proposamenak sailkatuko ditu, aurreko klausulan aipatzen diren irizpideen arabera balorazio altuenetik baxuenera. Ondoren, alderdi ekonomikotik eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaleari jakinaraziko dio, jakinarazpena jaso ondorengo hamar egun baliodunen barruan aurkez dezan zerga eta Gizarte Segurantzako gaietako betebeharrak beteak dituela egiaztatzen duen dokumentazioa, kontratua betetzeko erabiliko dituela hitz emandako baliabideak badituela erakusten duena, eta behin betiko bermea jarri edo eratu duela frogatzen duena.

Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan enpresa egunean dagoela frogatzen duten ziurtagiriak, 2001eko urriaren 12ko 1098/01 Errege Dekretuak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onartzekoak, 13. eta 14. artikuluetan xedatutakoaren zentzuan.

Ez dute ziurtagiri horiek aurkeztu beharrik izango Ogasun eta Finantza Departamentuko Kontuhartzailletza eta Auditoretza Zerbitzuak emandako ziurtagiriaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kontratuak egiteko gaitasuna egiaztatzen edo egiaztatu duten lizitatzaleek; edota Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Errolda Ofizialari eta Sailkapen Ezarpenari buruzko 1998ko otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak erregulatutako Kontratisten Erroldan izena emanda daudenek, errolda horretako legelari arduradunak egindako ziurtagiriaren kopia aurkezten badute.

2.- Kontratazio organoak bost egun balioduneko epean esleitu behar du kontratua, aipatu diren agiriak jasotzen dituenetik aurrera. Esleipenak arrazoitua behar du izan, izangaiei edo lizitatzaleei jakinaraziko zaie. Jakinarazpenaren edukiak beti jaso beharko du, kanpoan utzitako lizitatzale edo baztertutako izangairik izan bada, haiek esleipen erabakiaren kontra errekurtsua nahiko oinarriekin jartzeko behar adinako informazioa.

3.- Baldin eta proposatutako esleipen hartzaleak kontratua egiteko behar diren eskakizunak betetzen ez baditu, administrazioak haren ondoren dagoen lizitatzaleari edo dauden lizitatzaleei esleitu ahal izango die, haien eskaintzen hurrenkeraren arabera, ahal izanez gero, deialdi bat egin aurretik, esleipen hartzale berria ados baldin badago.

XI.- BEHIN BETIKO BERMEA ETA KONTRATUA FORMALIZATZEA

1.- Esleipena ematen zaion enpresak, kontratuan jasotzen diren obligazioak beteko dituela bermatze aldera, behin betiko bermea eman beharko du, esleipen zenbatekoaren %5, BEZik gabe, kontratua indarrean izango den hasierako aldirako.

Berme hori eskudirutan eman daiteke, **KIROLGÍ** enpresa esleipendunari adierazten dion kontu korrontean dirua sartuta, edo abal moduan, baldintza agiri honen III. Eranskinean zehazten den ereduaren arabera.

Bermearen gainean zigorren bat ezarriko edo kalte-ordainen bat eskatuko balitzaio kontratistari, falta den zenbatekoa jarri beharko du, hamabost laneguneko epean, eta bestela kontratua baliogabetu daiteke.

2.- Kontratua sinatu, lizitatzailerei esleipenaren jakinarazpena bidaltzen zaien egunetik hasita hamabost egun baliodun igaro ondoren sinatu beharko da. Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Kontratua eskritura publikoan gauzatuko da espresa esleipendunak hala eskatzen badu, sortzen diren gastu guztiak enpresa esleipendunak ordainduko ditu.

3.- Kontratua formalizatu aurretik, esleipendunak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Erantzukizun zibileko aseguruak kontratuaren polizaren kopia eta primen ordainagiria, hirugarrengoei eragindako kalteengatik eta bere behin betiko nahiz behin-behineko pertsonalak, langileek edo mendekoek sortutakoengatik. Kapital aseguraturak: 100.000 euro.
- Esleipenduna enpresa elkarte bat bada, aurrekoaz gain, aldi baterako enpresa batasun gisa legez eratuta dagoela egiaztatzea beharko du eta elkartearen IFK aurkeztu beharko du.

XII.- ORDAINTZEKO ERA

1.- Ordainketa bankuko transferentzien bidez egingo da, aldez aurretik hileko fakturak aurkeztuta.

2.- Ordaintzeko epea, modua, eta kontatzeko modua, eta justifikatu gabeko atzerapenik egongo balitz enpresa esleipendunak izango lituzkeen balizko interesen sortzapena eta eskubideak Sektore Publikoko Kontratu Legean eta gainerako xedapen orokorretan ezartzen diren irizpideen arabera eraenduko dira.

XIII.- KONTRATUA GAUZATZEA

1.- Kontratua ezarritako baldintzetan gauzatzea enpresa esleipendunaren ardura izango da, baldintza ekonomiko-administratiboen agiriaren eta enpresa esleipendunak aurkezturiko eskaintzaren arabera, eta **KIROLGÍ** edo kontratuaren ardura duen pertsonak emandako jarraibideen arabera.

2.- **KIROLGÍ** egoki iritzitako ikuskapenak eta egiaztapenak egin ditzake, edozein unetan, kontratuaren helburu diren obligazioak betetzen direla eta zerbitzuak egoki ematen direla ziurtatzeko.

XVI.- KONTRATISTAREN OBLIGAZIOAK

Enpresa kontratistak betekizun hauek izango ditu:

- a) Hizkuntza ofizial biak erabiltzea kontratuari lotutako agerpen publiko guztietan.
- b) Hizkuntza ofizial bietan egitea kontratuaren xedeak eragiten dituen txostenak edo bestelako lanak, softwareen testu eta soinu interfaceak barne.
- c) Kontratuaren ondorioz beste pertsona batzuekin sortzen diren hitzezko nahiz idatzizko harremanak, beste pertsona horiek aukeratutako hizkuntzan gauzatuko dira.
- d) Normalean euskara erabiltzea kontratua dela-eta Administrazioarekin izango diren harremanetan.
- e) Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea sortzen diren agiri eta euskarrietan.
- f) Generoaren ikuspegia kontuan izatea kontratua egikaritzean sortzen diren txosten, idatzi, datu bilketa, estatistika eta abarretan.
- g) Indarrean dauden xedapenak bete kontrataturiko zerbitzuak ematen dituzten langileei lanari eta Gizarte Segurantzari dagokionez.
- h) Kontratistak izaera pertsonaleko datuak erabili behar baditu, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta hura garatzeko argitaratutakoak ezartzen dituen obligazioak bete beharko ditu.

XV.- KONTRATUA UZTEA eta AZPIKONTRATATZEA

1.- Jatorria kontratuan duten eskubide eta obligazioak hirugarren bati utzi ahal izango zaizkio, baldin eta **KIROLGÍ** aldez aurretik horretarako baimena ematen badu, berariaz eta idatziz, eta betiere, uztearen hartzailleak agiri honetan adierazten diren baldintzak betetzen baditu.

2.- Kontratuaren zerbitzuak azpikontratatu ahal izango dira baldin eta **KIROLGÍ** aldez aurretik horretarako baimena ematen badu, berariaz eta idatziz, eta betiere, azpikontratatuak agiri honetan adierazten diren baldintzak betetzen baditu.

XVI.- KONTRATUA BALIOGABETZEA

Kontratua baliogabetzeko kausa izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 206. artikulua a), b), d), e), g) eta h) letretan ezartzen dituenak, eta kontratuan jasotako obligazioak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan jasotakoaren arabera. Puntu honetan jasotako edozein arrazoi dela medio, kontratua berez baliogabetuko da, eta **KIROLGI**k bere erabakia kontratistari jakinarazi besterik ez du egin beharko.

Jakinarazpena jasotzen duenean, enpresa kontratista berehala entregatu beharko dizkio **KIROLGI**ri kontratua dela-eta ordura arte egindako eta sortutako dokumentu guztiak. Dena **FUNDAZIO**aren jabetzara igaroko dira. Era berean, **KIROLGI**k emandako material guztia itzuli egin beharko du egoera onean.

Hori guztia, kontratuaren likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe.

XII.- ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA

1.- Baldintza ekonomiko eta administratiboen agiri honen arabera prestatuko eta esleitzeko da kontratua, eta hemen aurreikusi ez diren alderdietarako, hauek hartuko dira kontuan: **KIROLGI**ren kontrataziorako barne jarraibideak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak (esleitzeko ahalmena duten baina administrazio publikoa ez diren sektore publikoko entitateek adostutako araudien mende ez dauden kontratuen prozedurak arautzeko) ezartzen dituen arauak, maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua eta hura aldatu zuen martxoaren 4ko 817/2009 Errege Dekretua, eta hor aurreikusitakoarekin bat ez datozen heinean, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onartzen duena.

Ondorioei eta iraungitzeari begira, baldintza ekonomiko eta administratiboen agiri honetan adierazitakoa izango da kontuan, eta hor aurreikusi ez diren alderdiei dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak.

2.- Jurisdikzio-ordena zibila erabiliko da, kontratua prestatzeari, esleitzeari, ondorioei, betetzeari eta iraungitzeari dagokionez, bi aldeek artean sortzen diren eztabaidak ebazteko.

I. ERANSKINA

Izena eta abizenak:	
Helbidea	
NAN:	
Ordezkatzen duen enpresa	
Enpresaren helbidea	
Identifikazio Fiskaleko Kodea	

Behean izenpetzen duenak, era egokian kreditatzen duen ahalordean oinarrituta (hala badagokio), ondorengoa aitortzen du:

- Baduela administrazioarekin kontratatzeko ahalmena, kontratua betetzeko aski gaitasun baduela eta ez dagoela 2007ko urriaren 30eko Arlo Publikoko Kontratuen 30/2007 Legeak 49. artikuluan aurreikusitako debeku egoeretako batean ere.
- Ez duela orden sozialean nahiz laneko segurtasun eta osasun gaietan arau hauste larria egiteagatik zigor irmorik jaso, 1998ko apirilaren 7ko 8/1998 Legean eta 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legean, hurrenez hurren, xedatutakoaren arabera.
- Egunean dagoela zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan, indarrean dauden xedapenek ezarri bezala eta Kontratuen Legearen Erregelamenduko 13 eta 14. artikuluek aurreikusten duten neurrian. Halaber, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dago kontratuaren xedeari dagokion epigrafean eta ez du bajarik eman zerga horren matrikulan.

(data eta sinadura)

II. ERANSKINA

ESKAINZA EKONOMIKOA

Izena eta abizenak:			
Helbidea			
NAN:			
Ordezkatzen duen enpresa			
Enpresaren helbidea			
IFK			

AITORPENA

- 1.- Ezagutzen dut kontratu honen baldintza administratiboen agiria.
- 2.- Kontratua betetzeko gaitasuna dut eta baliabide aski, aipatutako agirietan ezarritako baldintzetan, eta eransten dudan proposamenaren arabera.
- 3.- Konpromisoa hartzen dut kontratua gauzatzeko, agiri horiek diotenari lotuz eta jarraian aipatutako diru baldintzetan:

Kontratuaren prezio BEZik gabe (3 urte)	
BEZa	
GUZTIRA:	

(data eta sinadura)

Oharra: Oharra: Prezioaren barruan, BEZa ez ezik, gainerako kontzeptuak ere sartuta daude: zergak, gastuak, esparru fiskal orotako tasak eta arielak, eta kontratistaren industri hobaria.

III. ERANSKINA ABAL EREDUA

[...] erakundeak (*kreditu erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena*), IFK [...] eta helbidea (*jakinarazpen eta errekerimenduetarako*) [...(e)an] dituenak, eta haren izenean [...(e)k] (*ahalordedunaren izen-abizenak*), agiri honen behaldez adierazitako ahalorde-askiestetik ondorioztatzen denez egintza honetan behartzeko behar beste ahalorde duenak [...](*abalatuaren izen-abizenak edo izen soziala*), IFK [...] duena, euro (*letra eta zenbakiz jarri*) ABALATZEN DU, Fundazioaren ekonomi, administrazio, teknika eta komunikazio kudeaketarako zerbitzuen kontratutik ondorioztatutako betebeharrei erantzuteko, KIROLOGI FUNDAZIOAREN aurrean.

Erakunde abal-emaileak, bere erantzukizun pean, adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onesten duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2. artikuluan adierazitako betebeharrak betetzen dituela. Abal hori notario aurrean sinatzen da obligaziodun nagusiarekin solidarioki, eskusio-onurari espresuki uko eginda, eta KIROLOGI FUNDAZIOAREN lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da KIROLOGI FUNDAZIOAK abala kitatzeko edo itzultzeko baimena eman arte.

Lekua eta data

Erakundearen helbidea

Ahalordunen sinadura.